



BERRIRO ERE ERASOAN LOURDES TXIKIN

Gaur, atzo Biodibertsitatearen Eguna ospatu ostean, herritar askoren harridura eta haserrerako motozerren burrunba itzuli da Lourdes Txikira. Txikizioaren ostean lanak geldituta zeudela uste genuen, baina goizean dozena erdi zuhaitz bota dituzte bertan eta berriro ere umeak eskolan zeudela makina astuna, arrastradorea maldan gora eta behera ibili da. Badirudi segurtasunak orain ez duela lekurik segurtasunaren izenean agindutako triskantzan. Antza denez, Udalaren Ingurumen Departamenduaren irizpideen aurka eta Gipuzkoako Foru Aldundiko inolako baimenik gabe ekin omen diote lanari. Lehengo astean Hirigintzako Zinegotziak gezurretan aritu zitzaigun eta lanak ez zeudela geldituta adierazi zuen. Behar bada Enrique Ramosek berak hasteko agindua eman die. Hala balitz, oraindik larriagoa irudituko litzaiguke, jarrera egoskor bezain despotaren seinale bailitzateke.

Edozein kasutan ere, ez zaigu serioa iruditzen orain, gerora, lursailaren jabeek malda egonkortzeko plana kontrata ditzaten eskatu izana. Lehenbizi zuhaitz guztiak moztu eta mendia suntsitu eta gero egonkortasuna bermatzeko zer egin pentsatzeko agintzea ere! Gaurkoan ere agindutako 50mko "segurtasun" gerria finkatu gabe zegoen eta zuhaitzak bere kaxara moztu aritu dira harik eta berriro mozketa Gipuzkoako Foru Aldundiak lanak eten dituen arte.

Hirigintza Iraunkor izena daraman Udal Departamentuak ikaragarri kaltetzen ari da ingurumena. Ez al dio Enrique Ramosi lotsarik ematen? Mesedez, gezur gehiagorik ez.

Haritzalde eskatzen duena:

- 1.- Zuhaitz mozketa etetea, pistak lehengoratzea eta, neguan, lursaila birlandatzea bertako zuhaitzekin.
- 2.- Lursailak zuen babes mailari eustea.
- 3.- Ingurumen Fiskaltzak balizko delituak ikertzea.
- 4.- Donostiako Udalak zein Gipuzkoako Foru Aldundiak jabeak zigor ereduak ezartzea.
- 5.- Enrique Ramosen berehalako dimisioa edo hura kargutik kentzea.

Donostian, 2017ko maiatzaren 23an.

Harremanetarako: 609 420 438
naturzale@haritzalde.org
www.haritzalde.org



NUEVA TALA EN LOURDES TXIKIN

No sabemos si para celebrar el Día de la Biodiversidad de ayer o qué, pero hoy han vuelto las motosierras a Lourdes Txiki para sorpresa y enfado de numerosos ciudadanos. Pensábamos que los trabajos estaban paralizados después del desastre realizado, pero esta mañana, con los niños en la ikastola han talado media docena de árboles. No han cortado más porque al parecer les han vuelto a paralizar los trabajos, esta vez Diputación. ¿Cómo se entiende que unos trabajos ordenados por Urbanismo del Ayuntamiento en un terreno rústico, no urbano, con la excusa de la seguridad, ahora no la tengan en cuenta y ande maquinaria pesada con los niños en clase?

La semana pasada, el Concejal, Enrique Ramos aseguraba, mintiendo, que los trabajos se habían reanudado. Desconocemos si él está detrás de esta nueva orden que, por cierto, no cuenta con el aval medioambiental del propio Ayuntamiento ni con la preceptiva autorización foral. Si fuera así, es decir, si Enrique Ramos estuviera detrás de esta nueva orden, el tema sería aun mucho más grave por el despotismo que denotaría.

En cualquier caso, no nos parece serio que se haya ordenado a los propietarios que encarguen un estudio para la estabilización de la ladera, tras haber arrasado con la vegetación existente en ella. ¿Primero cortan los árboles y luego se plantean qué hacer para estabilizar la ladera? Y ¿dónde estaban señalados los 50 m del margen de seguridad fijados? ¿Los árboles cortados estaban siquiera en esa franja? Nos da la impresión que de nuevo han estado haciendo lo que les ha venido en gana hasta que les han paralizado la tala.

El Departamento municipal que se autodenomina “Urbanismo Sostenible” no puede estar haciendo más daño a la Naturaleza y al medio ambiente. ¿No le dará un poco de vergüenza a Enrique Ramos lo que está ocurriendo? Por favor, no queremos más mentiras.

Lo que pide Haritzalde:

- 1.- Que se paralice la tala, se restauren las pistas y se plante arbolado autóctono en toda la ladera.
- 2.- Que se mantenga el nivel de protección que tenía la parcela.
- 3.- Que la Fiscalía investigue los posibles delitos.
- 4.- Que tanto Ayuntamiento como Diputación sancionen de una manera ejemplarizante a los dueños de la parcela.
- 5.- La inmediata dimisión de Enrique Ramos o su retirada del puesto.

Donostian, 2017ko maiatzaren 23an.

Harremanetarako: 609 420 438
naturzale@haritzalde.org
www.haritzalde.org